

LABAYRU IKASTEGIAREN TOKIAN TOKIKO IKASTAROAK. BESTELAKOAK

Euskal kantanak

Lo kantanak

Jolasak

Ume jolasak-kantuak-dantzak

Bertsolaritza (Bertsolaritza irakasteko oinarritzko ikastaroa)

Herri kantutegia eta euskal curriculuma

Tradizioko euskal ipuingintza

Ipuin tailerra

Euskal mundu sinbolikoa

Umeen berbeta eta umeentzako hizkuntza lantegitxoa

Ume eta gazte berbeta

Nobelagintza

90eko hamarkadako euskal literatura

Euskal ahozko literatura

Haur literatura tailerra

Euskal literatura

—Azken joerak

—Azken aldiko euskal literatura garaikidea

—Euskal literatura klasikoa (XVI-XIX)

—XX. mendeko literatura

—Haur literatura

Soziolinguistika

Euskararen historia

Bizkaiera lantzeko curriculuma

Elikadura eta dietetika

Argazkigintza digitala

Euskal gaiak Interneten

Informatika euskeraz



Euskal kantak

Helburuak:

- ✓ Euskal kantutegiaz gozatzea.
- ✓ Kanta zahar eta barriak berreskuratu eta ikastea.
- ✓ Kantutegia baloratzen ikastea.
- ✓ Kantutegia euskal nortasun faktore lez baloretea. Kultura eta sasoi jakin baten adierazle lez baloretea.
- ✓ Kanten garrantziaz hausnartzea: heziketa tresna eta kultura transmititzeko tresnez jabetzea.
- ✓ Besteekaz hartu-emonak sortzeko, ezagutza bide eta gozatatzeko tresnatzat hartzea.
- ✓ Kantutegiak historian zehar euki dauen aldaketaz jabetzea.
- ✓ Kanta bakotxaren testuingurua, hiztegia, istorioak etab. ezagutzea.
- ✓ Autore desbardinak ezagutzea.
- ✓ Ahozko literaturara hurbiltzea.
- ✓ Kantutegiaren bidez euskalkietara hurbiltzea.

Edukiak:

- ✓ Ahoz aho transmitidutako kantak (baladak, koplak...).
- ✓ Idazle ezaguna daukien kantak.
- ✓ Hegoaldeko kantutegia.
- ✓ Iparraldeko kantutegia.

Lo kantak

Helburuak: Lo kantetara hurbildu eta gozatu.

Edukiak:

- ✓ Zer dira lo kantak?, zertarako?, zelan kantetan dira?
- ✓ Hitzzen azterketea.
- ✓ Musikearen azaleko azterketatxua.
- ✓ Euskal lo kantak eta inguruko kulturetako lo kantak.
- ✓ Bizkaiko lo kantak aztertu eta ikasi.
- ✓ Beste euskalkietako lo kantak.

Jolasak

Helburuak:

- ✓ Gure plazetan eta ikastetxeetan ikusten dan betiko jolasei buruzko ezjakintasuna asetzea.
- ✓ Jolasekaz lotuta eta galtzear dagoan lexikoa berreskuratzea.

Edukiak:

- ✓ Jolasten hasi baino lehenagokoak. Zotz egiteko formulak.
- ✓ Betiko jolasen gordailua: Aldaika, altzaketan, txilin portaka, antzera lumaka, busti ala lehorka, txilin-txilin bonba, soka saltoka egiteko kantak...
- ✓ Jolasen ingurukoak: kantak, esaerak....
- ✓ Jolasen hiztegia.

Ume jolasak-kantuak-dantzak

Helburuak: Ume jolasak, kanta, dantza, ipuintxuak, etab. irakastea eta, batez be, horreek umeei transmititzeko bideak proposatzea.

Edukiak:

- ✓ Ume jolasak / kantuak.
 - Min hartzen dabenekoak.
 - Burla egitekoak.
 - Laztantzarakoan egitekoak.
 - Esku eta hatzamarrekaz egitekoak.
 - Naturagazko erlazinoa.
 - Kateatuak.
- ✓ Kantuak.
 - Ume-kantu, bertso eta balada eredu garri batzuen bitartez, euskal kanta landuko dira.
- ✓ Dantza.
 - Jauziak.
 - Kantudun dantza.
 - Joko dantza.

Bertsolaritza (Bertsolaritza irakasteko oinarriko ikastaroa)

Helburuak: Euren kabuz bertsolaritza landu gura dabenez guztiei oinarriko formazioa eta lanabesak eskaintzea.

Edukiak:

- ✓ Bertsolaritzaren historia.
- ✓ Bertsogintzaren oinarriko formakuntza tekniko eta klaseak gidatu ahal izateko ezagutza praktikoa.
- ✓ Berbea jolas bihurtu.
- ✓ Bertsolaritza ahozkoasuna lantzeko bitartekoa.

Herri kantutegia eta euskal curriculum

Helburuak:

- ✓ Kantutegia aztertzea euskal curriculumaren ikuspegitik.
- ✓ Kantua, kultura transmisio edo hedapen bide moduan erabiltea.
- ✓ Aro eta euskalki desbardinatuko kanta ezagutzea, bere testuinguru ulertzea, ikastea eta kantatea.
- ✓ Kantutearen plazera sentitzea.
- ✓ Gure ikastetxean lantzen diren kanta sailkatzea.
- ✓ Kantutegiaren ezagutza handitzea gure ikastetxean .

Edukiak:

- ✓ Ahozko euskal literatura eta kantagintza.
- ✓ Autore ezaguna daukiezan olerkiak eta bertsoak.
- ✓ Gure ikastetxeko kanta sortea.

Tradizinozko euskal ipuingintza

Helburuak:

- ✓ Ahoz aho heldu izan jakuzan euskal ipuinak jorratu, ereduak emon eta tradizinoa ezagutzea.
- ✓ Ipuinaren atalen azterketea egin eta, oro har, testu azterketarako bideak lantzea.
- ✓ Hizkuntzaren mundu sinbolikoa ezagutzea.
- ✓ Ahozko eta idatzizko sormenerako bideak eskaintzea.

Edukiak:

- ✓ Ahozkotasuna eta ipuingintza (sarrera).
- ✓ Ipuinaren atalen azterketea.
- ✓ Ipuinaren azterketa gramatikala.
- ✓ Ipuinaren sinboloen azterketea.
- ✓ Testu azterketarako beste estrategia batzuk.
- ✓ Ahoz eta idatziz sormena lantzeko estrategia eta jolasak.

Ipuin tailerra

Helburuak:

- ✓ Bai kontetan bai entzuten beste barik gozetako.
- ✓ Sormena bultzetako.
- ✓ Kultura baten arlo, hizkuntzagaz sano lotuta dagoana, ezagutzeko eta lantzeko.
- ✓ Mundua zelan ikusten / ulertzen dogun ohartzeko.

Edukiak:

- ✓ Gorputzaren erabilera (keinuak, begiak...).
- ✓ Ahotsa (erritmoa, tonua, ahoskerea...).
- ✓ Ipuinen hasierako eta amaierako formulak.
- ✓ Entzulea eta ipuin motak.
- ✓ Girotzea, denpora eta lekua.
- ✓ Ipuinak kontetako lagungarriak.
- ✓ Hizkuntza baliabideak (onomatopeiak, erregistroak...).

Euskal mundu sinbolikoa

Helburuak:

- ✓ Ume eta gazteei Euskal Herriko tradizinozko kultura moldeak transmititzea.
- ✓ Irakasle, begirale, prestatzaile, hezitzaile, guraso eta holan gura dabenak euskal tradizioaren edukien jabe egitea.
- ✓ Euskal Herriko tradizino biziak gaur egun: eguneroko jardueren elikadurea.

Edukiak:

- ✓ Ohitura zaharraketa urte sasoiak.
- ✓ Eguraldiari buruzko jakinduria. Atsotitzak.
- ✓ Euskal mitologia. Mari eta bere legeak.
- ✓ Koloreak eta zenbakiak.
- ✓ Ipuingintzaren ildo batzuk.

Umeen berbeta eta umeentzako hizkuntza lantegitxoa

Helburuak: Umeentzako hizkuntza afektiboaren zenbait ezaugarri linguistikoz modu praktikoan jabetzea.

Edukiak:

- ✓ Ume txikitxuen berba berezia.
- ✓ Hizkuntza afektiboa lortzeko beste baliabide batzuk (elementu txikigarriak, afektiboak...).
- ✓ Hotsen erabilera.
- ✓ Umeen zenbait behar komunikatibo (olgetan, arropa atontzen, jaten...).
- ✓ Umetxuekaz erabilteko esaera eta errefrau batzuk.

Ume eta gazte berbeta

Helburuak: Umeentzako hizkuntza afektiboaren zenbait ezaugarri linguistikoz modu praktikoan jabetzea.

Edukiak:

- ✓ Hizkuntza mailen eta funtzinoen ganeko gogoeta.
- ✓ Umeen hizkerearen ezaugarri nagusiak.
- ✓ Hizkuntza afektiboa lantzeko baliabide linguistikoak (hotsak, enfasia, elementu txikigarriak...).
- ✓ Umeen hizkerearen alderdi kulturala (olgetak, dantzak, kantak, ipuinak...).
- ✓ Gazteen hizkerearen ezaugarri nagusiak.

- ✓ Erregistrorako baliabideak (hizkuntza kolokiala, euskalkia, hitanoa...).
- ✓ Lokuzino eta hiztegirako bideak.
- ✓ Komunikazio bide barriak (internet, eskuko telefonoa...).
- ✓ Gazteak hizkuntzaren normalizazioaren eragile. Aisialdia eta irakaskuntzaren erronka.

Nobelagintza

Helburuak: Irakasleak (batzutan irakasleak be bai) bildurrez hurreraten dira nobelara, irakurtzen ari diran liburuaren barrunbeak ez dituezalako ezagutzen. Ikastaro honetan, beraz, nobelagintzaren barruko osagaiak aztertu eta ulertzeko ahalegina egingo dogu. Modu horretan, irakasleak ikasleei eleberri bat irakurteko agintzen deusienean, liburuaren barruko mekanismoak irakatsiko deusiiez. Izan be, edozein literatur lan zenbat eta hobeto ezagutu, gozamina handiagoa izan ohi da.

Edukiak:

- ✓ Nobelagintzaren osagaiak: pertsonaiak, denporea, espazioa...
- ✓ Idazkerea, estiloa, tonua...
- ✓ Euskal nobelagintzaren alderdi batzuk.
- ✓ Idazle teknikak.

90eko hamarkadako euskal literatura

Helburuak: Ikastaro honen helburua 90eko hamarkadan euskal literaturan, narratiban nahiz olerkigintzan nagusitu diran estetikak eta joerak azaltzea da. Estetikak gaur egun indarrean dagoz, horregaitik, behar-beharrezkoa da horreek ondo ezagutzea oingo euskal literaturearen nondik norako nagusiez jabetzeko. Beraz, azken urteotako euskal literaturearen gainbegiradea zehatza proposatzen da.

Edukiak:

- ✓ Narratiba.
 - Kontaketa fantastikoaren bide nagusiak, idazleak eta testuak.
 - Kontaketa errealistearen bide nagusiak, idazleak eta testuak.
 - Errealismo zikinaren kontaketea, bide nagusak, idazlek eta testuak.
 - Absurduaren kontaketea, bide nagusiak, idazleak eta testuak.
- ✓ Olerkigintza.
 - Sinbolismo intimista.
 - Joera kulturalista.
 - Esperientziaren poesia.
 - Erresistentzia poesia.
 - Joera feminista.
 - Errealismo zantarraren joera.

Euskal ahozko literatura

Helburuak: Ahozko euskal literaturearen ekoizpen nagusiak ezagutu, literarioki jorratu eta horren guztiaren ganean testu azterketarako orientabideak proposatzea.

Edukiak:

- ✓ Ahozkotasunaren ezaugarriak ezagutaraztea.
- ✓ Ahozko ekoizpenen lanketa literarioa jorratzea: ipuina, baladea, kantu lirikoa, atsotiza, kanta, bertsoa, antzerkia...
- ✓ Testuak iruzkintzeko orientabidek emotea.

Haur literatura tailerra

Helburuak: Eskolan, haurren sormen literarioa pizteko, idazlana da gaur egun erabilten dan eredu bakarra. Haurren irudimenean baliabide gehiago be badagozala jakinda, sormena bultzatzeko modu desbardinak bilatuko ditugu, Gianni Rodari idazle eta pedagogoaren sisteman oinarrituta.

Edukiak:

- ✓ Modu barriak bilatzea haurren sormena lantzeko, hitzekaz jolastuz, haurtzaroko oroimenak berreskuratuz...
- ✓ Ipuingintza tradizionala, ahozko literatura eta bertsoingintza.
- ✓ Gianni Rodariren sisteman oinarritutako ariketak eta jolasak.
- ✓ Haur literaturearen teoria orokorra.

Euskal literatura. Azken joerak

Helburuak: 90eko hamarkadarik hona narratiban zein olerkigintzan nagusitu diran estetika eta joera barriak azaltzea eta jorratzea. Idazle eta lan barriak agertzea. Azken urteotako euskal literaturearen gainbegirada zehatza egitea proposatzen da.

Edukiak:

- ✓ Narratiba joera nagusiak (errealismo zikina, absurdoaren kontaketa, kontaketa lirikoa...).
- ✓ Olerkigintzako joera nagusiak.

Azken aldiko euskal literatura garaikidea

Helburuak:

- ✓ 80ko hamarkadatik honako euskal literatureari gainbegiradea emotea.
- ✓ Testu azterketarako bideak eskaintzea.

Edukiak:

- ✓ Bangoardia osteko egoera aztertzea.
- ✓ Estetika barriak aztertzea.
- ✓ Idazle barrien belaunaldiak agertzea.
- ✓ Azken aldiko eleberrigintza.
- ✓ Azken aldiko olerkigintza.
- ✓ Azken aldiko ipuingintza.
- ✓ Testu azterketea.

Euskal literatura. Euskal literatura klasikoa (XVI-XIX)

Helburuak: Euskal Literatura klasikoa ezagutu eta lantzea. XVI. mendetik XIX. mendera. Idazleak eta testuak ezagutu eta landu.

Edukiak:

- ✓ Berpizkundea (Bernart Etxepare...).
- ✓ Barrokoa (Axular...).
- ✓ Klasizismo barria (Mogel...).
- ✓ Erromantizismoa (Etxaun...).
- ✓ Neorromantizismoa eta Pizkundea (Arrese Beitia...).
- ✓ Generoen agerpena eta garapena (antzerkia, ipuina, eleberria...).

Euskal literatura. XX. mendeko literatura

Helburuak: XX. mendeko euskal literaturearen ibilbidea azaldu eta jorratzea, ohituraletasunatik postmodernidadera, narratiban zein olerkigintzan. Testu kanokikoak ezagutu eta landu.

Edukiak:

- ✓ XX. mendeko euskal narratiba (ohituraletasun, esistentzialismoa, esperimentalismoa bangoardia, errealismo magikoa, errealismoa).
- ✓ XX. mendeko olerkigintza (sinbolismoa, poesia soziala, esperimentalismoa, bangoardia, azken joerak).

Euskal literatura. Haur literatura

Helburuak: Haur Literatura lantzeko baliabideak proposatzea; haurrentzako literatura idazteko eta haurrei sormenagaz olgetan irakasteko.

Edukiak:

- ✓ Haur literaturearen historia.
- ✓ Iruzkinak egiteko jarraibideak.
- ✓ Idazketea.

Soziolinguistika

Helburuak: Hizkuntza normalizazioan abiatzeko oinarrizko jakintza teorikoa eta praktikoa zabaltzea. Hizkuntza plangintzara heltzeko bideak proposatzea.

Edukiak:

- ✓ Soziolinguistika berbearen esangurea eta bilakaera.
- ✓ Hizkuntza hiru planoak eta hiru axiomak.
- ✓ Hizkuntza tipologiak eta euren arteko hartu-emonak.
- ✓ Hizkuntza komunitatea.
- ✓ Termino batzuk argitu (elebitasuna, diglosia, nazinoa eta estadia, hizkuntza minorizatua eta minoritarioa...).
- ✓ Euskeraren bilakaera soziolinguistikoa.
- ✓ Hizkuntzen egoera gure inguruan.
- ✓ Hizkuntza plangintza.

Euskeraren historia

Helburuak:

- ✓ Euskerak corpus laburra euki arren, hizkuntzalaritzak eskintzen deuskuzan tresnakaz euskalariak landutako teoriak eta proposamenak ezagutzea.
- ✓ Euskerak dituan ezaugarriak eta berben jatorriaren azalpen praktiko eta teorikoak emotea.
- ✓ Praktikan oinarritutako teoria bat bideratzea.

Edukiak:

- ✓ Euskeraren jatorriari buruzko ikerketak, hipotesiak eta kontrateoriak.
- ✓ Glotokronologia.
- ✓ Akitanieraren garrantzia, lekukotasunak.
- ✓ Maileguak, latindar inperioaren eragina.
- ✓ Testu zaharrak.
- ✓ Bibliografia.
- ✓ Zenbait lekukotasunen inguruko hausnarketak.

Bizkaiera lantzeko curriculuma

Helburuak:

- ✓ Bizkaierearen agerpena eskolan aztertzea.
- ✓ Bizkaierearen lanketearen bidegarritasuna aztertzea.
- ✓ Sarrerarako oinarrizko baldintzak eta erabakiak aztertzea.
- ✓ Bizkaierearen lanketa formala eta ez-formalerako oinarrizko curriculum-a eratzeko orientabideak prestetea.
- ✓ Metodologia eta erizpideak erabagi eta adostea.
- ✓ Estrategia posibleak.

Edukiak:

- ✓ Hausnarketea teorikoa eta justifikazinoa.
- ✓ Erabagi orokorrak.
- ✓ Helburu eta edukiak.
- ✓ Neurketa eta ebaluazinoa.

Elikadura eta dietetika

Helburuak: Ondo elikatzearen garrantziaz ulertaraztea, jakien ezaugarriak eta funtzinoak ezagutzea eta jateko ohitura txarrak baztertzea. Hau guztia ulertzeko jardura teorikoak zein praktikoak izango dira.

Edukiak:

- ✓ Elikagaien inguru kontzeptuala.
- ✓ Elikagaien sailkapena.
- ✓ Nutrizinoaren inguruko gomendioak.
- ✓ Elikadura haurtzaroan.
- ✓ Elikadura nerabezaroan.
- ✓ Emakumea eta elikadurea.
- ✓ Elikadureagaz zerikusia daukien gaixotasun batzuk.
- ✓ Oinarrizko pausuak dieta orekatu bat prestetako.

Argazkigintza digitala

Helburuak: Argazkigintza digitalari buruzko oinarrizko kontzeptuak ikastea.

Edukiak:

- ✓ Argazki-makina digitalak.
 - Argazki-makina motak.
 - Abantailak eta desabantailak.
 - Zelan erabili argazki-makinak eta, zehazki, argazki-makina digitalak. Oinarrizko kontzeptuak: sentikortasuna, argia, diafragma, eremu-sakonera, konposizinoa.
- ✓ Argazkia egin osteko prozesua.
 - Artxibo mota nagusiak.
 - Argazkien tratamendua: argazkiak argitu/ilundu, kontrastea, koloreen tratamendua, fokatzea, argazki zaharren konponketa.

Euskal gaiak Interneten

Helburuak: Internetek euskal gaiak lantzeko eskaintzen dituan baliabideak ezagutu eta erabilten ikasi: e-posta, txat eta foroak euskeraz, euskal webguneak, hiztegiak, materialak euskeraz, euskeraz idatzitako testuen zuzentzaileak...

Edukiak:

- ✓ Euskal hiztegiak Interneten (Elhuyar, 3000, Euskalterm, Harluxet, Sinonimoak, Morris, Hiztegi Batua...).
- ✓ XUXEN euskera zuzentzailea.
- ✓ Euskal tipografia (baska.ttf).
- ✓ Euskal instituzino eta erakundeen webguneak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, IVAP-HAEE, Euskaltzaindia, HABE, EITB, EHU, AEK, Eusko Ikaskuntza...).
- ✓ E-posta euskeraz (www.euskalerrria.org).
- ✓ Euskal bilatzaileak (google euskeraz, www.kaixo.com, www.aurki.com...).
- ✓ Euskal kultureagaz lotutako portalak eta webguneak (egunkariak, aldizkariak, www.nontzeberri.com, www.jalgi.com, www.zernola.net, www.erabili.com, www.euskaraz.com, www.argia.com, www.zientzia.net, www.bizkaiera.net, www.elhuyar.com...).
- ✓ Txata eta foroak euskeraz.
- ✓ Mapak.
- ✓ Eskolarako materialak.

Informatika euskeraz

Helburuak: Irakasleek informatika arloan dituezan beharrezkoen erantzutea izango litzateke helburu nagusia, gehienbat informatika arloko euskal terminologia landuz, euskeraz dagoan softwarea ezagutu eta erabiliz, eta euskal webgune interesgarrienak arakatzuz. Ikastaldea adostuko litzateke ikastaroaren benetako edukia euren nahietara egokitu ahal izateko.

Edukiak:

- ✓ Terminologia euskeraz.
- ✓ Ofimatikako aplikazio orokorrak.
- ✓ Posta elektronikoa euskeraz.
- ✓ Webgune interesgarriak: bilatzaileak, webgune instituzionalak, kultur arlokoak, euskera lantzeko lagungarriak, hiztegiak...

*** Atal guztietan ikasleek adibideak landuko ditue, eurek proposatutakoak askotan, irakasleak bideratuta.**